



Iritziak

Desparekotasuna ala indarkeria?



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

Begirada ohitu egiten omen da indarkeria ikustera. Maiz, gaztetxoek eskuragarri dituzten bideo-jo-koetan, telesail eta filmetan, telebista-ko notizietan... Nonahi agertzen diren eta oharkabean barneratu ohi ditugun bortxazko irudiak askotarikoak dira. Haatik, bada indarkeria fisikoaz gain bestelakorik ere, begi-bistakoa ez dena, isilekoa, minsorta, baina sakoneko zuloa uzten duena.

Urte honen hasieran, Oxfam erakundeak mundu osoko desparekotasunak azaleratzen dituen txostena argitaratu zuen. Bertan, hainbatetan aipatu diren mundu osoko aberastasunaren banaketan dauden desoreken datuak aipatzen dira. Hala ere, desoreka horietan zaintza lanez hartzen duten protagonismoa azaleratu nahi izan du ikerlanak. *Zaintza-arentzat denbora*, titulu horrekin aurkeztu du erakundeak aipaturiko txostena. Munduan, zaintza lanei dagozkien eta ordaindu gabekoak diren 12.500 milioi ordu estimatu dira, eta kalkuluen arabera, gutxienez, 10,8 bilioi dolarretako ekarpena egingo liokete ordu horiek guztiek ekonomiari, lanorduak dirutan jarriko balira. Gai honen inguruan ohi-koa den datua ere azpimarratzen du txostenak: ordaindu gabeko zaintzaren hiru laurdenak, eta ordaindutako lanaren bi herenak emakumeen gain daude.

Norbere etxeko lanez gain, etxetik kanpo langileen egoera ere aztertzen da.

Badira jendartean
bidegabekoak diren
praktiken bidez
mendean hartuta
dauden kolektiboak, eta,
oro har, normalizatutako
egoerak bailiran
jokatzen dugu

Dirudienez, mundu osoan egoera horretan dauden hamar lagunetatik batek bakarrik du lan legediaren babesa. Are gehiago, lanordu mugari dagokionean, langileen %50 baino gehiagok ez omen du estaldurarik. Zinez datu dramatikoak direla ezin uka daiteke, bereziki, etorkizunari begira aurreikusten diren datuek osasun zerbitzuak sendotzea eta gizarte zerbitzuen hobekuntza beharko direla azpimarratu dutelako. Izan ere, Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, 2030ean 1.000 milioi pertsona nagusi eta 6-14 urte bitarteko 100 milioi haur gehiago egongo dira.

Gu ere munduko estatistika horien parte gara modu batera edo bestera. Jakina da zaintzaren alorrean dabilzanen aldarrikapenen oihartzuna nabarmena izaten ari dela azken garaiotan. Bizkai-ko egoitzetako olatu berdeak sortutako

bulkadak ekarri du hein handi batean Gipuzkoako zahar-etxeetako langileen greba, eta etxetik kanpo lanetan dihardutenen gehiegizko lanorduak eta hainbat kasutan jasotzen dituzten soldata iraingarriak ere plazaratu izan dira komunikabideetan.

Emakume eta gizonezkoen arteko soldata arrakalaz hitz egin da hainbatetan, eta baita lan baldintza duinak izatearen eskubideaz ere. Oxfamek argitaratutako txostenak argi adierazten du hau guztia. Dena dela, mota honetako datuak esku artean ditudanean, hainbatetan, Pierre Bourdieu soziologo frantsesak planteatutako indarkeria sinbolikoaren ideia datorkit burura. Badira jendartean bidegabekoak diren praktiken bidez mendean hartuta dauden kolektiboak, eta, oro har, normalizatutako egoerak bailiran jotzen dugu. Ez dira indar fisikoaren eraginagatiko markak ikusten, baina ez da enpatiazko esfortzu handirik egin behar modu internoan kontratarik gabe hamalau orduko lanaldiak egiten dituen pertsonak jasan ditzakeen egoerak ulertzeko. Urtarrilaren 30eko greba orokorrean oso presente izan ziren egoera honetan dauden lagunak, eta gerturatzen ari zaigun martxoaren 8an ere protagonismoa izango dute zalan-tzarik gabe. Izan ere, kontrakoa esaten duenik bada ere, aldarrikapen hauek guztiz ulergarriak, justifikatuak eta arduratsuak dira. ●